

Asisko gutuna

2025ko apirila

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

198. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bizitza espirituala balioekin, pentsamenduekin, maila altuko ekintzekin lotu izan dugu. Baina bizitza, baita espirituala ere, modu konkretuan bizi dugu. Hor egiaztatzen da dena.

Gogoetarako gaia

Konkretua

Bizitzaren dimentsio guztiei buruz hausnartzen dugunean, oinarrizkoenetik hasi eta unibertsaleraino, arrautza bat nola frijitu edo Jainkoaren Erreinuaz aritu, hizpide dugun errealitate guztia biltzen duten hitzak, kontzeptuak edo ideiak erabiltzeko joera dugu: "arrautza prestatzeko beroa aplikatu behar zaio...", "pobreak gure aurretik sartuko dira zeruetako Erreinuaz, eta Jainkoak hartuko ditu...". Hau da, gure hizketak oso goitik jo ohi du, errealitate osoa bere baitan hartzeko.

Baina erabiltzen ditugun ideia, diskurtso, proposamen horiek, konkretuan baino ez dira ematen, gure bizitzako eguneroko errealitatean gorputzen dira. Ez dago arrautzarik, arrautza hau edo hura baizik; ez dago balorerik, eskuzabaltasun-ekintza jakin bat baizik pertsona batek beste bati egina, edo leku bateko izen eta abizena duen norbaiti antolatutako talde batek egina.

Bizitza espiritualean gauza bera gertatzen da. Nire maitasuna ez da orokorrean, zehatza bai-

zik, bitarteko zehatzen bidez pertsona zehatzei zuzendua. Jainkoarengan dudak denbora eta espazio zehatzetan bideratzen da; sentimendu jakinak biziarazten dizkit, mugimendu eta hitz konkretuak aktibatzen dizkit, aurpegi propioa duten pertsonengana hurbiltzen nau...

Konkretutasunak denbora eta espazio jakinetan bizitzea eragiten dit bikainena ere, bere anbibalentzia, kaskarkeria eta nahasketa karga guztia-ekin. Benetan biziarazten dit bikainena, baina lurrean errotuz. Konkretuak egiantan bizitzen laguntzen dit, nahiz eta guztiz txukuna ez izan.

Konkretua apaltasunean bakarrik bizi daiteke. Hezur-haragizko pertsona konkretuetan bakarrik ematen da, beren inperfekzio eta guzti, Jainkoaren salbazioa. Gure fedea Hitza haragi egin zela dioenean, gorputz batean, garai batean, espazio jakin batean gorputzu dela adierazten du; eta Jesus nazaretarrarengan ikusi genuen. Jainkoa guztiz apala da.

Ebanjelio pasartea: Sant. 2,14-17

Senideok, zertarako du batek «Nik badut fedea» esatea, egintzetan ez badu azaltzen? Horrelako fedea salba ote dezake? Anaia nahiz arrebaren batek zer jantzirik edo eguneroko janik ez badu, eta zuetakoren batek esaten badio: «Hoa bakean, bero hadi eta ase», baina behar duen laguntza eman ez, zertarako balio du horrek? Berdin fedea ere: bera bakarrik, egintzetan ez bada azaltzen, hila dago.

Frantziskotar espiritualtasuna

Beste batean, Frantzisko dohatsua leku hartan bertan zela, bazen han oso espirituala eta Ordenan zaharrenetako zen anaia bat, oso gaixo eta ahul zegoena. Egoera hartan ikusiz, Frantzisko haren-ganako gupidaz bete zen. Baina garai hartan anaiek, osasuntsuek zein gaixoeek, pozik eta pazientziaz pobretasuna oparotasuna balitz bezala hartzen zuten eta beren gaixoaldietan ez zuten sendagairik erabiltzen, ez eta eskatzen ere; aitzitik, gorputzarentzat kaltegarri zirenak gogotsu egiten zituzten. Horregatik, honela esan zuen Frantziskok berekiko: «Anaia honek goizean goiz mahats heldua jango balu, on egingo liokeela uste dut». Eta hala, egun batean, goizean goiz isilean anaia hura deitu eta elizaren ondoan zegoen mahastira eramane zuen. Aukeratu zuen mahats-mordo eder eta helduak zituen mahatsondo bat eta, honen ondoan anaiarekin eseriz, mahats-aleak jaten hasi zen, hura bakarrik jaten lotsa ez zedin. Eta jaten ari ziren bitartean, jauna goretsi zuen anaia hark. Eta gero, bizi izan zen bitarte guztian, debozio handiz eta malko ugariz sarritan gogoratu zuen anaien artean Frantzisko santuak azaldu zion errukia. (PerLe 53)

Otoitza

Zoriontsu egin nahi baduzu,
asko maite duzun bat,
esaiozu gaur, izan zaitez oso ona...
bizi delarik, adiskide, bizi delarik.

Lore bat eman nahi badiozu
ez itxaron hil arte,
maitasunez bidali gaur...
bizi delarik, adiskide, bizi delarik.

"Maite zaitut" esan nahi badiozu
zure etxekoei,
hurbil edo urruneko lagunari...
bizi delarik, adiskide, bizi delarik.

Gutziz zoriontsua izango zara,
zoriontsu egiten ikasten baduzu,
ezagutzen dituzun guztiak...
bizi direlarik, adiskide, bizi direlarik.

Ez bisitatu panteoirik,
ez bete hilobiak lorez,
maitasunez bete bihotzak...
bizi direlarik, adiskide, bizi direlarik.

Ana María Rabatté

Gutuneko azken hitzak

Artearen misterioa zehaztasunarena besterik ez da." (Pablo d'Ors)

2025ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Jn 5,1-3,5-16	7. Jn 8, 12-20	13. Lk 22,14-23,56	19. Lk 24,1-12	25. Jn 21, 1-14
2. Jn 5,17-30	8. Jn 8, 21-30	14. Jn 12,1-11	20. Jn 20, 1-9	26. Mk 16, 9-15
3. Jn 5, 31-47	9. Jn 8, 31-42	15. Jn 13,21-33.36-38	21. Mt 28,8-15	27. Jn 20, 19-31
4. Jn 7,1-2.10.25-30	10. Jn 8,51-59	16. Mt 26, 14-25	22. Jn 20,11-18	28. Jn 3, 1-8
5. Jn 7, 40-53	11. Jn 10,31-42	17. Jn 13, 1-15	23. Lk 24,13-35	29. Mt 11,25-30
6. Jn 8, 1-11	12. Jn 11,45-57	18. Jn 18,1-19,42	24. Lk 24,35-48	30. Jn 3, 16-21

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitza hilaren
24an izango da